

Altza-Bidebieta


300 urteko baserria bota dute

Joan den hilaren 15ean Lau Haizetako Etxeberri baserria, XVIII. mende-koa, behera bota zuten. Dirudienez, errepidea zabaltzea izan da arrazoia.

Sara Soria

Lau Haizetan parke publiko egiteko lanak hasi ziren. Parkea Larratxotik igarotzen den autopista azpiko tuneletik Garberaraino zabaltzen da gaur egun eta Lau Haizeta baserriarekin muga egiten du. Bertan, haurrentzako jolasak eta paseoan ibiltzeko bidexkak jarri dituzte.

Lanak, baina, aurrera doaz, eta oraingoan parkerako sarre-ira ireki nahi dute, "Lau Haizetako Bulebarra" egiteko. Beraz, errepidea zabaldu behar dute eta Etxeberri baserria oztopoa omen zen egitasmoa aurrera eramateko. Udalak Etxeberri-ren jabearekin negoziatu eta baserria lurrera bota du.



Trukean, metro batzuk haratago etxe berria eraikitzen ari dira jabearentzat.

Proiekturik ez

Antolakuntza eta Hirigintza Kudeaketa Saileko arduradun baten hitzetan, "ez dago Lau Haizeta bidea zabaltzea aurreikusitako proiekturik". Beraz, egitasmorik aurkeztu ez duten arren, baserria behera bota dute.

Etxeberri baserria ez da atzo goizekoa. Altzako Historia

Mintegiak ziurtatu digunez, artxiboan baserri honi buruz datuak lehen datua 1702. urtekoa da. Hala ere, lehendik ere han zegoen.

Etxeberri eraisteak ustekabe harrapatu ditu auzotarrak. Bizirik Gaude Lau Haizeta inguruko baserrien elkarteko Iñaki Zapirainek azaldu digunez, ezusteko izugarria izan da haientzat. "Lau Haizetako parkearen proiektuan eta lanetan gure iritzia kontuan hartu dute normalean, baina oraingoan ez

Eraisteak ustekabe harrapatu ditu auzotarrak


digute ezer galdetu, isilpean egin dute". Bizirik Gaude elkar-atea baserriak mantendu eta baserritarrak babesteko sortu zen: "Alde horretatik, oso gaizki iruditu zaigu, baina partikular batekin adostasuna lortzen bada, guk ezin dugu ezer egin", dio Zapirainek.

Areto futbol txapelketa

Apirilaren 20an, Bidebietako areto futbol txapelketaren zazpi-garren edizioa hasiko da. Txapelketaren jardunaldiak larunbat gotzetan jokatu dira eta finalak, azken urteetan legez, Txanpionto jaietan izango dira maiztza bukaeran. Izena emateko edo informazio gehiago jaso ahal izateko 943390122 telefonora hots egin daiteke.



Arriberri, 7 ALTZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxeo eta Altza Polikiroldegia-
ren ondoan eto autobusez bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA

Ballenero's
boutique

Baleazaleak 10
Tel.: 943-47 20 89
20011 Donostia

OLIYOS

TABERNA * JATEETxea

Erregezainen kalea 4 • Tel.: 943 21 49 89